

HERRIALDE HIZKUNTZAK ETA EREMU URRIKOAK EUROPAREN ARDURA



FRANÇOIS ALFONSI

PARTITU DI A NAZIONE CORSAKO KIDEA
BERDEAK / EUROPAKO ALIANTZA LIBREA
TALDEKO KIDEA AURREKO LEGEALDIAN

6 45 boto alde, 26 aurka eta 29 abstentzio, bozketan izan ziren 700 diputatuen artean: 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak bete-beteko sostengua eman zion gure herrietako bakoitzaren ondarea osatzen duten hizkuntzak zaintze aldera aurkeztu nuen txostenari; hizkuntza horiek guztiek batera, Europak neurri handi batean galzorian duen ondarea osatzen baitute. Diputatuek, lan mamitsu hori eginaz, sendo aldarrikatu dute Europak duen ondare hori babestea Europaren ardura dela.

Izan ere, begi bistan dago egoera horren jatorria: euskara zailtasunean badago, korsikera arriskuan badago eta Europako hainbeste eta hainbeste hizkuntza egoera berean badaude, gauza guztien gaineratik Euskal Herrian gaztelania eta Korsikan frantsesa lurralde horietako hizkuntza historikoen orde zezarri nahi izan direlako da. Beraz, hizkuntza aniztasunari dagozkion kontu hauetan Europak duen erantzukizuna zurrizteko, subsidiarotasunaren atzean ezkutatzea eta estatuen eskuetan uztea, Pontzio Pilatorena egitea da. Benetako ardurari ihes egitea da, eta hizkuntza eta kultura ondare horren galtze programatuaren konplize izatea, berebiziko aniztasuna oinarri duen Europaren nortasunaren alderdi funtsezko bat den aldetik. Hori izan zen Europako Parlamentuko lehen eztabaidagaia, tratatuek berariaz jasotzen zuten europar eskumena ez omen zenez, herrialde hizkuntzen eta eremu urrikoen arazoa han aztertu beharrekoa ez zela argudiatzen zutenen aurrez aurre. Hizkuntza horiek Europaren ondarea direnez, Europaren ardura

da babestea, eta are argiago dago hizkuntza horiek bizirik irauteko duten mehatxuen erantzule zuzenak estatuak direla.

Europaren erantzukizun hori nahitaez dago hizkuntza erkidego bakoitzarenari ezinbestean lotuta. Inork ez du Europar kontuan hartuko euskara, euskaldunek eurek parte hartzen ez badute arbasoengandik jaso duten hizkuntzaren sustapenean. Egin behar den lehen urratsa, hortaz, hizkuntzaren eragileei euren lurraldean euskarria emango dien esparru politiko, administratibo eta kultural bat sortzea da, ez baita hizkuntzarik biziko hiztun komunitate batek ez badarabil. Hizkuntzak errealitate biziak dira, ugaltzeko, giza taldeek erabiltzea behar dutenak. Hizkuntza

batek bizirik iraungo duela aski ziurtaturik izateko, beharrezkoa da, bada, berez eta erregulartasunez erabiliko duen herri bat orain eta gero existitzea.

Europako herri horri, aitortzea zor zaio; bere hizkuntzari, ofizialtasuna, eta bere kultura adierazpideari, laguntza. Halako esparru politiko bat bakana

da, eta ezegonkorra izango da estatu baten errealitatean bermatzen ez bada. Aurkikuntza hori altxagailurik handienetako bat da Katalunian Omnium eta halako kultura elkarte indartsuetan oinarritzen den oraingo autodeterminazio prozesuan. Euskal Herriak ibilbide politiko bera egin dezake bihar-etzi. Baina argi dago Europako hizkuntza guztiek ezingo dutela etorkizun hurbilean berdin egin, eta Europaren ardura oraingo instituzio esparruan ere hartu behar dela, baita hiztun komunitatearentzat oso egoera txarrean dauden hizkuntzekiko ardura ere. Egoera oso bestelakoa da herrialde batetik

Inork ez du Europar kontuan hartuko euskara, euskaldunek eurek parte hartzen ez badute arbasoengandik jaraunsi duten hizkuntzaren sustapenean



bestera. Euskara euskarri politiko sendoetan oinarritzen da. Askoz aukera apalagoak daude Korsikan, baina tokiko instituzioak baliabide berriak garatzen saiatzen dira. Beste leku batzuetan dena dago egiteko edo ia dena. Egoerak ezberdinak dira, baina hurbilketak globala izan behar du. Aurrreratuenean erantzukizun bat dute ahulenekiko, eta denek bat egin behar dute elkartasunez; izan ere, hizkuntza erkidegoek, bakarka ahulak izanik ere, euren ahaleginak pilatuta, bat eginda jarraitu behar dute indar bakarra izateko Europako erakundeetan presio egiterakoan.

Europa mailan presio talde eraginkor bat bultzatzea da, beraz, lehenengo beharrezana, eta ondorio horretarako sare egituratuak edukitzea. Lehen sarea hizkuntza mehatxatuak eta ofizialtasunik gabeak sustatzeko tokiko erakundeek osatzen dute, hala nola Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD), indartu egin behar dena Europako hizkuntza aniztasunaren alde egiten duen politika hori Batzordearen ardatz bihurtzea lortzeko. Aurkeztu dudak txostenean oinarrituta bilatu ahal izango den lehen helburua da hori, Europar Palamentuaren gehien-gehiengoaren babesa-rekin gainera.

NPLDk arriskuan dauden hizkuntzen behatokia egituratu ahal izan behar du, autoritatea izan dadin eta hizkuntza talde horiei argudio argiak eman diezazkien estatuetan eragina izan dezaten. «Arriskuan dauden hizkuntza erkidegoen edo horien kultura erakundeen nortasuna eta hizkuntza erabilera “hizkuntza bereizkeriaren bitartez nahiz hizkuntza asimilazio behartu edo disimulatuz baliaturik” inoiz ahuldu izan dituzten edo gaur egun oraindik ahuldu egiten dituzten jokaerak gaitzetsi» behar direla agintzen du Europako Parlamentuak bozkatutako txostenak. Hizkuntza bati bere garapenean edo berritze

prozesuan oztopoak jartzen zaizkion bakoitzean, Europak hizkuntza erkidego horiei laguntza eman ahal izan behar die espezialista entzutetsuek egiztatutakoan oinarrituta.

NPLDn funtsezko lana egiten duten kideak daude, adibidez Euskal Herriko hizkuntza erakundeetako ordezkariak, baina Kataluniakoak, Galeskoak edo beste leku batzuetakoak ere bai, hau da, politika trinkoak garatzen diren lekuetakoak, horiek erakutsi baitute emaitza onak ematen dituztela hizkuntza bateko belaunaldi gazteen artean etengabe atzeraka zihoazen erabilerak berreskuratzeko. Kide horiek funtsezkoak dira Europako beste leku batzuetan hiz-

kuntza berreskuratzeko behar diren egitasmoei indarra ematen laguntzeko, hau da, oztopo politiko eta sozialak gogorak eta tokiko dinamikak oraindik ahulegiak diren lekuetan. Hezkuntzarako materialak, garapen egitasmoak, adin guztietara egokitutako hizkuntza politika, ume txikietatik hasita, eta abar: «jokaera onak» zabaltzeko lehenik eta behin esperientzia bizi izan dutenekin egin behar da, eta Europak bere lurraldeaz kanpoko hizkuntza-eragilerik entzutetsuenen inbertsioari laguntza eta bultzada eman behar dio.

Une honetan hainbat bilakaera politiko ditugu. Eskoziako eta Kataluniako erreferendumeak presio berria egiten diote Europari, estaturik gabeko nazio guztiek aprobetxatu ahal dute indar hori. Europako Parlamentuaren 2013ko iraileko bozketak ireki duen tarte politikoak, eta Europako zenbait lurraldetako identitate erreibindikatze indartsuek bultzatzen ahalmena irabazi izanak, egoera mesedegarria sortzen dute Europako erakundeek estaturik gabeko hizkuntzekiko duten ardura euren gain hartzeko. Orain, beraz, lan politikoa berrabiatu behar da Europar Batzorde berri bat eratu denean.

Ara es L'heure est venue.

Hizkuntza erkidegoek, bakarka ahulak izanik ere, euren ahaleginak pilatuta, bat eginda jarraitu behar dute indar bakarra izateko Europako erakundeetan presio egiterakoan